

Herririk Herri | 6

Iurretako Prefabricados Alberdin
"eraso larria" salatu du LABek



Berbaz | 10

Loredi Salegi: "Gaitasunak mugatzen
ditugu 'Ezin dut' lakoak pentsatuz"

Kultura | 13

'Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu
dira etxean' argitaratu du Magdalenak

DURANGALDEA | 4

'Izarren Distira'
lehiaketarako
hauta-probak
Durangaldean

DURANGO | 2

Bete-beteko giroa
Sanfaustoetan,
asteburu luzean
murgilduta

Jai giroa da nagusi Durango-
ko txoko guztietan. Sanfausto-
ei zukua ateratzeko aukera
badago oraindino, bigarren
asteburuko ekitaldietan.



KIROLAK | 17

Nazioartean jauzi
bat gorago egin
gura du Hirumetek
ziklo-krosean

Zaldibar | 4

Zergak errenten arabera igoko
dituztela azaldu du udalak

Elorrio | 7

World Kafea, urriaren 21ean,
Geurien ekimenaren eskutik

Mañaria | 6

Herriko bandera berbagai
Ondarearen Jardunaldietan

Abadiño | 8

Muntsarazko auzokideak kexu,
eraikuntza lanen eraginagatik

DURANGO | 2

Gerraosteko Durango biziberrituko du Karrikak

Durango 1936 elkartearen 'Agurrik Gabeak'
ekitaldian estreinatuko dute antzezlan berria

Urriaren 21ean Santa Ana plazan izango
da, aurreku eta lore-eskaintzaren ondoren



Durango 1936 elkarteak eta Karrikak aurkeztu zuten atzo 'Lurra astinduz' antzezlanaren barruan. Kepa Aginako

Entzuten zaitut...

*Zatoz eta egiaztatu
lortu ahal duzula...
benetan nahi duzula
erabakitzen baduzu.*

elespejodelcoaching.es
Oiz 6 DURANGO | 946 03 06 74
<http://elespejodelcoaching.wordpress.com/2011/03/04/poema-la-escucha/>

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Karrika taldearen antzezlanak 'Agurrik gabeak' ekitaldian

Gerraosteko Durangon kokatutako lana da 'Lurra astinduz'; hilaren 21eko ekitaldian antzeztuko dute

Durango 1936 kultur elkar-teak laugarren urtez antolatuko du 'Agurrik gabeak' ekitaldia, faxismoaren kontra jardun zuten herritarrek omentzeko. Aurtengoan, urriaren 21ean egingo dute ekitaldia, Santa Ana plazan. Omenaldia 20:00etan hasiko da, eta aureskua eta lore-eskaintzaren ondoren, Karrika antzerki taldeak 'Lurra astinduz' lana antzeztuko du.

Santa Ana plazan egingo dute faxismoaren kontra borroka egin zutenen omenaldia

Datorren barikuko ekitaldian belaunaldi gazteek faxismoaren kontra egindako beharra nabarmenduko dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, "gazteek justiziaren alde hartutako konpromisoa" gizarteratu gura dute.

Gerraosteko Durango

Karrikaren 'Lurra astinduz' antzezlanak gerraosteko durangarren bizipenak kontatzen ditu. Antzerki taldeko kideek azaldu dutenez, "urte haietako sentimendu eta bizipenak argia eta hitza" eman gura izan diete, amodiozko istorio baten bitartez.



Durango 1936 kultur elkarteak kideak eta Karrikako kideak prentsaurrekoan.

Karrikak 2007an Durangoko bonbardaketari buruzko 'Martxoak 31' ikuskizuna sortu zuen, eta berau amaitzerakoan taldekideak hutsune batez gelditu zirela azaldu dute: "'La Victoria' osteko durangarren bizimodua kontatzea hurrengo lan batean".

Karrika: "Gerraosteko bizipen eta sentimenduei argia eta hitza eman gura izan diegu"

Lana sortzea ez dela erraza izan aitortu dute Karrikako kideek: "Informazio falta, aurreiritziak eta gaiak daukan gordintasunak erronka izan dira sormen prozesuan". Durango 1936 kultur elkarteak batutako testigantzak hartu dituzte abiapuntu. ■ A. U.

Jai giro bete-beteko asteburua Sanfaustoak amaitzeko

Emon, Esne Beltza, Obrint Pas eta Zea Mays taldeek joko dute gaur



Urtero legeaz artopilak banatu dituzte San Fausto Egunean.

Patxikotxu eta Pantxikeri domeka iluntzean agurra egin aurretik, hainbat ekitaldi daude oraindino Durangoko Sanfaustoetan.

Gaur 18:00etan tortilla txapelketa hasiko dute txosnetan. Gaueko eskaintzan denetik egongo da; San Agustinen bertso saioa eskainiko dute Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek. Landako Gunean dantza doinuak izango dira Emon eta Esne Beltzagaz, eta txosnetan Ihesbide, Obrint Pas eta Zea Mays taldeek joko dute.

Txosnaguneak 'Itsasoa' gaia proposatu du biharko Mozorro Eguneko jantziak atontzeko

Bihar Mozorro Eguna izango da, eta goizetik hainbat ekitaldi egongo dira; tartean, pregoilari izan diren Orfeoiko kideek kantu erronda egingo dute. Txosnaguneak 'Itsasoa' gaia proposatu du Mozorro Egunerako. 13:00ean umeak mozorro kalejiran ibiliko dira. Gaueko kontzertuei dago-

kionez, Landakon Jare, Txarrena eta Oihan Vega egongo dira, eta txosnetan Never Surrender eta Luhartz.

Ingurugiroaren Eguna izango da domeka, eta, besteak beste, birziklatuta egindako musika tresnekin eratutako ReciclART ikuskizuna izango da Landakon. Jaiak amaitzeko, Patxikotxu 20:00etan eroango dute Arripausuetarantz, eta Pantxike Yoko Out eta Audience-en kontzertuen ostean agurtuko dute txosnetan. ■ A.U.

> Bideoa: www.anboto.org

Hainbat ekimen munduko pobrezia salatzen asmoz

Tailerrak, arteari lotutako ikuskizunak eta hitzaldiak izango dira bihartik hilaren 24ra

Durangaldeko zein Euskal Herriko hainbat erakunde, elkarte, ikastetxe, mugimendu eta GKE-ren artean *Zero pobrezia* izeneko kanpaina abiatu dute aurreko hiru garrenez.

Ekimenaren barruan, bihar 20:00etan, *Txoribigun* izeneko ikuskizuna eskainiko dute San Agustin kulturgunean. Domekan 11:00etatik 13:00etara, Ezkurdin, hainbat tailer eta jolas garatuko dituzte; produktu ekologikoen gaineko informazioa, 'Produktu

trukea' izeneko ekimena eta batzen diren artean osatuko duten giza-katea, besteak beste.

Argazki erakusketa

Urriaren 17tik 21era, *Durango*, *Zero pobrezia* izeneko erakusketa atonduko dute Andra Mariko elizpean. Hilaren 21ean, 19:00etan, hazkunderaren gaineko tailerra dago Pinondon, eta urriaren 24tik 31ra argazki lehiaketa egingo dute San Antonio Santa Rita ikastetxean. ■ J.D.

San Rokeko biribilgunea zabaldu dute, zortzi hileko lanen ondoren



Zortzi hile iraun dute San Roke saihesbideagaz lotzen duen biribilgunea eta ingurua atontzeko lanek. Durangoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak iaz sinatutako hitzarmenaren ondorio dira martxoan hasi zituzten lanak. Lanek zortzi hilabete iraun dute eta 1,6 milioi euroko inbertsioa eragin dute.

DURANGALDEA

Oskar Zarrabeitia jeltzalea presidente Amankomunazgoan

Bildu eta EAJko hautagaien balizko berdinketa PSE-EEK hautsi zuen Zarrabeitiaren alde bozkatuta

Oskar Zarrabeitia jeltzaleak izango du Durangaldeko Amankomunazgoko gidaritzako datoen lau urteetan. Asteleheneko plenoan bere alderdiaren 13 botoak eta PSE-EEKo Fernando Castilloren batu zituen. Bilduko hautagai Arrate Elkorok bere alderdiaren 13 botoekin gertatu zen, eta bigarren alkateordea izango da; lehenengoa Zarrabeitiak aukeratuko du.

Bildu: "Aldaketa behar zela esan ondoren, sukursalismo politikoz jokatu du PSE-EEK"

Castillok honako arrazoi hauek eman zituen EAJ babesteko: "Kudeaketa bermatzen duela uste dugu, eta gaur egungo egoeraren diagnostikoa zein aurkeztu dizkiegun etorkizuneko proposamen askotan bat egiten dugula uste dugu". Lan-ildoei buruz, "garapen ekonomikoa, turismoa eta jantoki soziala" aipatu zituen.

Zarrabeitiak sarrera berbal-dian azaldu zuenez, "orain arteko zerbitzuak ahalik eta eraginkorren

mantenduko ditugu, eta udalekin batera diagnostiko bat egingo dugu zer zerbitzu berri martxan ipini daitezkeen jakiteko". Horrez gainera, "elkarriketarako eta eztabaidarako prest" daudela adierazi zuen, eta Marian Larrauriri eskerrak eman zizkion 16 urtean Amankomunazgoan egindako lanagatik.

Zarrabeitia Izurtzako Udaleko zinegotzia ere bada eta orain arte Amankomunazgoan Kultura, Kirol, Euskara eta Kontsumo Batzordeko presidentea izan da.

Bilduren kritika

Bilduko Arrate Elkorok PSE-EEren jarrera kritikatu zuen: "Urte luzez aldaketa beharrezko zela adierazi arren, sukursalismo politikoa besterik ez dutelako egin".

Ondoren, Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio eta Zaldibarko Independienteek euren Amankomunazgoan zegozkien zinegotzi biak EAJri utzi izana salatu zuen: "Zilegitasunik bako jokaera horregaz Amankomunazgoa estatutuen lege-urratzerik egon ote den jakiteko egin beharreko guztiak egingo ditugu". ■ J.Derteano

> Bideoa: www.anboto.org

'Eman giltza' kanpaina abian, euskararen transmisioa bultzatzeko

Gurasoentzako materiala eta webgunea prestatu du euskara zerbitzuen Alkarbide bilguneak

Gurasoei euskararen transmisioa dela eta eduki ditzaketen kezka, beldur edo zalantza argitzeko helburuagaz ipini dute abian 'Eman giltza' kanpaina. Bizkaiko euskara zerbitzuen Alkarbide bilgunearen proiektua da 'Eman giltza'. Hainbat tresna ipini dituzte gurasoen eskura, tartean www.emangiltza.com webgunea.

Interneteko ataria hiru hizkuntzatan dago; euskaraz, gaztelaniaz, eta frantsesez, guraso euskaldun, erdaldun zein mistoentzako materialagaz. Frantsesezko atala etorkinei zuzendutakoa da. Hainbat gurasoren testigantza ikusi daitezke bideoetan, eta transmisioa bermatzeko aholkuak, tresnak eta baliabideak daude www.emangiltza.com-en.

'www.emangiltza.com' atarian hainbat gurasoren testigantza jaso dituzte, besteak beste

Webgunean umeei euskaraz lantzeko materiala ipini dute; besteak beste, ume elebidunen gurasoentzako eskuliburuak, euskarazko produktuen katalogoa eta Interneten dauden hainbat esteka baliagarri ere bai.

Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio eta Zaldibarko euskara zerbitzuetan dago informazioa

Ku-ku izeneko argitalpena ere badago webgunean. Duela bost urte argitaratutako liburuxka da, eta udal batzuk berrargitaratu egin dute aurten. Liburuxkan gurasoei euren seme-alabekin berba egiteko oinarriak berba eta esamoldeak batu dituzte, eta baita abestiak ere. Liburuxkagaz batera, CD bat banatzen dute abestekin.

Alkarbide bilgunean, besteak beste, Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio eta Zaldibarko udaletako euskara zerbitzuak daude. ■ A.U.



Oskar Zarrabeitia Izurtzako Udaleko EAJko zinegotzia ere bada.

2011/2012 IKASTURTEA

IKASTAROAK DOHAINIK LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA	PRESTAKUNTZA MODULUAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUA
LANGILEEI ZUZENDUAK			
KATALOGO MODULAR BERRIA			
TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	Txirbil harroketa bidezko mekanizaketan dauden makinak eta sistemen instalazioa eta programazioa	Fabrikazio prozesu osagarriak txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Mekanizazio prozedurak txirbil harroketa bidez	80
	Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	CNC programaren egiaztapena eta doikuntza txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	70
		Txirbil harroketa bidez mekanizatuak produktuen muntatzearen egiaztapena	30
		(Zeharkakoa) Ingurugiro eta lan arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizaketan	30
TUTUEN INSTALAKUNTZEN FABRIKAZIOA ETA MONTAIA (Profesionaltasun ziurtagiri osoa)	Tutuen trazaraketa eta mekanizaketa	Tutuen fabrikazioaren planen interpretazioa	50
		Tutuen garapenaren trazaraketa	40
	Tutuen konformazioa eta antolaketa	Tutuen muntatzearen trazaraketa	60
		Tutuen muntatzearen antolaketa eta garapena	60
	Tutuen muntaketa	Tutuen muntatzearen antolaketa eta garapena	50
MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA INSTITUZIOETAN (Gaitasunaren egiaztapenarako baliagarriak)	Instituzioetako arretaren antolakuntza laguntza	Tutuen muntatzearen antolaketa eta garapena	80
		Tutuen muntatzearen antolaketa eta garapena	80
	Instituzioetako arreta soziosanitarioren bitartekotza	Instituzioetako menpeko pertsonentzat arretaren antolakuntza laguntza	70
IBILGAILUEN KARROZERIKO ESTRUKTURAREN MANTENTZE LANAK	Elementu finkoak	Instituzioetako menpeko pertsonentzat arretaren antolakuntza laguntza	70
		(Zeharkakoa) Elementu finkoen desmuntzea eta banatzea	60

GOAN KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Posizio horizontalako TIG soldadura	50
Beste posizio batuetako TIG soldadura	50
Gas fluoratuak maneiatzeko baimena	40
Karretila jasogailua gidatzeko baimena	20
Soldatzailen homologazioa	60

GOAN LANGABETUENTZAKO

Geriatria laguntzarako zaintzak	354
Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa	468
Karrozeria	400
Giro naturalako soldadura	445

ETXEBARRI AUZOA, ZG / 22PH,
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM

IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

■ DURANGALDEA

'Izarren Distira'-ko parte-hartzaileak bideoklip bateko extra

Casting-ak egingo dituzte Durangon, Elorrión eta Berrizen. Gala San Agustín kulturgunean izango da

Gazteen sormena bultzatzea da Izarren Distira lehiaketaren bigarren edizioaren helburua. Gazte sortzaile bila jardungo dute urriaren 17an Durangon, urriaren 18an Elorrión eta urriaren 19an Berrizen egingo dituzten castingetan. Hautaketa proba epaimahai profesional batek burutuko du gazteei aholkuak eman eta euren ikuskizuna hobetzen laguntzeko.

Gala erakustaldia Durangoko San Agustín kulturgunean antolatuko dute urriaren 29an. Aurten go berrikuntza nabariena ikusentzunezko ikuskizunak aurkeztu daitezkeela da. Beraz, gazteek bideoklipak, film luzeak zein bes-

telako bideoak aurkeztu ditzakete lehiaketara.

Revolta Permanent

Gainera, Durangaldeko gazteek Revolta Permanent rap taldearen *Kantuka* singlearen bideoklipa egiteko grabazioan extra moduan parte hartzeko aukera ere izango dute. Erakustaldira doazen ikusleak, berriz, taldearen kontzertura doan joango dira.

"Euskara onari" sari nagusia irabazten dutenek bideokamera bana eramango dute etxera; "ikus-kizun onena" aurkeztzen dutenek argazki kamera bana eta hirugarren saria jasotzen dutenek MP5 bana jasoko dute.

Izarren Distirak sarean ere badu bere oihartzuna. *Izarrendistira.com* gunean informazio guztia jarri dute eskuragarri. Tuenti erabiliz ere lotu daiteke ekimenagaz, eta izena eman ere bai. ■ J.G.

Izarrendistira.com webgunean gazteendako informazio guztia jarri dute eskuragarri



Harrera bikaina izan zuen iaz Izarren Distirak. Aner Mentxaka

■ BERRIZ

Euskara ikasteko gune eta ekintza berriak aukeran

Berrizko Euskara Sailak tailer berriak eskaini gura ditu "euskaraz berba egiteko txoko berriak eskaintzeko". Euskaldun zaharrei, euskaldun berriei, euskaltegi-tako ikasleei eta berbalagunei zuzendutako ekimena da aurkeztu dutena.

Mikel Garaizabalegaz ardoa dastatzeko ikastaroa jorratuko dute urriaren 20an

Urriaren 20an Mikel Garaizabal enologoagaz ardoa dastatzeko ikastaroa jorratuko dute, "modu dibertigarrian ardoaren sekretuak" aztertuz. Urritik abendurako eguaztenetan, Xabier Amurizak Bizkaiko testu eta kantuzaharren ikastaroa eskainiko du, *Euskaldun bat Veracruzén, Aitte San Migel* edota *Ipiñaburu leku altuan* lako abestiekin. Bestalde, josten ikasteko tailerra ere landuko dute azaroan zehar, eguaztenetan. ■ M.O.

■ ZALDIBAR

Hiru milioiko zorrari aurre egin beharko dio udalak

Herri-batzarrean, zergak errentaren arabera igotzeko asmoa aurreratu du gobernu taldeak



210 herritar hurreratu ziren zapatuan Olazar pilotalekura.

Joan zen zapatuan 210 lagun batu ziren Olazar pilotalekuan udalak deitutako herri-batzarrean. Jendeak emandako erantzunagaz "pozik" daude, Arantza Baigorri alkateak adierazi duenez. Parte-hartzea bultzatzea helburu izango du Bilduk gidatutako gobernu taldeak: herri-batzarrak hiru hilerik behin egingo dituzte, gutxi gorabehera, eta udaleko bilkura zein batzordeak beti irekiak izango dira, 19:00etan; akta guztiak webgunean eskegiko dituzte.

Diru kontuei dagokienez, udalak 3 milioi euroko zorra dauka gaur egun bankuekin, mailegutuan; "desfasea egon da eta ez da kontrolatu", dio Baigorri. Hurrengo

Herri-batzarrean azaldu dutenez, gardentasuna eta parte-hartzea dituzte helburu

urterako zergak igotzea aurreikusi dute—2006tikigo barikade—, errentaren arabera erregulatuz: "Gehiago daukanak gehiago ordainduko du", diote. Udaleko hainbat beharginen lan-kontratuak berraztertuko dituzte, "irregulartasunak" ei daude-eta. Orain arte kontrol falta egon dela salatu dute; ez dute begi onez ikusten arkitektuak eta bere enpresak 411.000 euro kobratu izana lau urtean. Arkitektu berri bat kontratatzeke lanetan dabilta.

Bestalde, Carmen Sampedro zinegotziak Hiri Antolamendurako Plan Nagusia zehazteari ekin go diotela erantsi zuen.

Herri-batzarrean EAJ eta PPko kide bana ere egon ziren. EAJk esan du batzarra aurreko legealdia kritikatzeko soilik erabili zuela gobernu taldeak; Baigorri, horren aurrean, helburua "udala zelan dagoen eta zergatik azaltzea" izan zela dio. ■ M.O.

■ OTXANDIO

Anbulatorioan zita hartzeko moduaren berri eman du udalak

Anbulatorioan erantzungailu automatikoa ipini dute hitzorduetako hartzeko; horretara, eguneko 24 orduetan eskatu daiteke medikuagaz hitzordua. Anbulatorioko orduetan ere martxan dago erantzungailuak.

Udal ordezkarien esanetan, udaletxean bost kexa izan dira modu horretara hitzordua hartzea gaitza dela esanez. Udalak argitu duenez, telefonoz deitu eta erantzungailuak salto egiten duen unean "Otros" berba esan eta automatikoki harrera zerbitzuan lanean dabilzan langileengana joango da deia, beti ere Anbulategiko ordutegian. ■ J.D.



OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

HEMEN AGERTU
GURA BADOZU,
DEITU:

94 621 79 02



IURRETA

“Eraso larria” salatu du LABek Prefabricados Alberdin

Gaur, 12:00etan, elkarretaratzea deitu du LAB sindikatuak enpresa aurrean



Enpresak ez duela ez berba egiteko ez konponbiderako jarrerarik agertu salatu du LABek. Anboto

Prefabricados Alberdi enpresan langile bi modu “ilegalean” kaleratu dituztela salatu du LABek. Azken lau urte eta erdian ordezkari sindikal moduan jardun dute biak, eta legez duten babesa “urratu” egin dela salatu dute, Langileen Estatutuagogoraziz. Prozedura ere ez dela bete gaineratu dute. Gaur, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute enpresa aurrean.

Delegatu sindikalak legez babestuta daude, jardunak irauten duen lau urteetan eta hurren-

LAB: “Denoi eragiten digun oinarrizko eskubidea urratu da langile bion kasuan”

goan. Babes horren eta ordezkarien eskubideen bermearen aurkako “eraso larria” epaitegiataroan dute kaleratzeak inpugnatzeko. Urriaren 19an izango da epaiketa Bilbon. Biak LABeko delegatu izan dira, 2011ko azken hauteskundeetan hautatu ez dituzten arte; hauteskunde horien “garbi-

tasuna” ere zalantzan jarri dute: hiritik ordezkari bakarra izatera pasatu dira enpresan, ELAkoa hori.

LABen berbetan, “euren eta langile guztien eskubideen alde jarduteagatik” kaleratu dituzte, eta “denen kontrako eraso” izan da: “Aurrekari bat sortuz gero, bata eta beste kaleratzen hasiko dira. Denoi eragiten digun oinarrizko eskubidea urratu da “. Enpresak ez duela ez berba egiteko ez konponbiderako jarrerarik agertu dute. ■ A. Basauri.

ATXONDO

Giro ederra eta munduko kulturez ikasteko aukera kulturarteko jaian

Jende ugari batu da zapatuan janari, musika eta dantzen inguruan

Marokoko kuskusa, Portugalgo ‘gameluaren baba’, Maliko bissa-pa, Euskal Herriko marmitakoa... Hainbat kulturatako jan eta edanak probatzeko aukera izan zen Atxondoko kulturarteko jaian. Musika, dantza, jolasak... osagai askoko jaia izan zen joan den zapatukoa, eta jende ugari gerturatu zen.

Plazainguruko postuez gainera, Bakearen Jaima delakoa ipini zuten udaletxe atzean. Hara gerturatutakoek, tea dastatzen zuten

Antolatzaileek balorazio ona egin dute; “errepikatzeko moduko jaia izan da”

artean, hainbat ikuskizun izan zuten; Egiptoko dantzak, perkusioa eta Ullanah Durangoko taldearen folk doinuak, esaterako.

Jaia udalak eta herriko eragile eta norbanakoek antolatu dute eta emaitzagaz gustura daude: “parte-hartzaileak pozik ikusi ditugu; errepikatzeko moduan”. ■ A. U.



Hainbat kulturatako atxondarrek gastronomia dastaketa eskaini zuten.

Konponbidea aztergai Abadetxearen auzian

Bilboko gotzaindegiak eta lurretako eliztarrek eraikina zutik mantentzea hobetsi dute

40 bat lagunek batzarra egin zuten joan zen egunean San Migel elizan, Bilboko gotzaindegiak gonbidatuta, Abadetxea hizpide. Hainbat proposamen botazituzten, nola edo hala, Abadetxea mantentzea hobetsiz. Baina auziak ez du konponbide argirik.

Gotzaindegiko ordezkari Jose Mari Ziarrustak, barne-egitura berrituz, asmoa 300.000 euroko aurrekontuagaz teiltuak konponetzea dela azaldu zuen. Udalak uste du, baina, errehabilitazioak integrala behar duela izan: 1. pisua metro bat altxatzea eskatuko luke, araudiaren arabera urmaila baino 75 zm beherago dago eta. Gotzaindegiak hondamen-espeditentea ekiditeko era ikusi du

egitasmoa aurkeztuta, gastua parrokiak gain hartuz: “Botatzea da aukerarik txarrena, ondarea-gaitik eta kokapenagaitik”.

Lau aukera

Lau dira aukerak: eraistea, gehien-goak bat egin ez arren; egitasmo bat lantzeko baldintzapean udalari dohaintzan ematea; udalagaz akordioa lotzea, hasieran teiltatua konponduz; eta, udalarengana ezik, herriko eragileengana ere jotzea. ■ M.O. / A.B.

Hondamen-espeditentea ekiditeko eratzat jo dute teiltatua berritzeko egitasmoa

IZURTZA

‘Sendabelarrak eta preparatuak’ ikastaroa

EHNE elkarteak eskainiko ditu sendabelarrei buruzko hiru saioak, urriaren 26, 27 eta 28an

Euskal Herriko Nekazarien Elkar-tearen eskutik eskainiko du sendabelarren ezagutza eta erabilerrari buruzko ikastaroa Izurtzako Udalak. Urriaren 26, 27 eta 28an burutuko dituzte ikastaroko saioak, eta baliabide naturalei buruzko oinarrizko jarraibideak eskainiko dizkiete hartzaileei.

Jubilatuen egoitzan 16:30ean hasita izango dira ikastaroaren hiru saioak, urriko azken eguazten, eguen eta barikuan.

Naturak eskaintzen dituen sendagaiak ezagutu eta erabiltzen jakiteko onarritako jarraibideak jasoko dituzte ikastarora

gerturatzen direnek. Landare bakoitzagaz zer ukendu, xaboi, olio edo infusio sortu daitezkeen azalduko du EHNE sindikatuko ikastaro emailak.

Landare bakoitzagaz zer ukendu, xaboi, infusio edo olio egin daitezkeen ikasgai

Ondoren, sendagai moduan baliatu daitezkeen preparatuak egiteko landare eta fruituak zer sasoitan batu daitezkeen irakatsiko diete saioetako ikasleei. ■ I.E.

MAÑARIA

Bizkaiko banderarik zaharrena berbagai

Urriaren 22an izango dira Ondarearen Europako Jardunaldien barruko Mañariko hiru ekimenak

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan Gerediaga elkarteak antolatutako hiru ekintzak urriaren 22an egingo dira, arratsalde. 1802ko Mañariko banderari buruzko berbaldia eskainiko du, batetik, Iñaki Irigoien ikerlari bilbotarrak. Banderaren jatorriaz, gaur egungo erabileraz eta herri-

ko dantzez jardungo du, esaterako, Irigoienek. Urriaren 22an, 17:30ean, udaletxean eskainiko du hitzaldia.

Ondoren, Wilhelm Humboldt hizkuntzalari alemaniarren figurari eta obrari buruzko “bisita antzeztua” izango da, 18:30ean, udaletxean hasita.

Eguna eta egitaraua amaitzeko, Bizkaiko zaharrenetarikoa den Jasokundearen Andra Maria elizako organutik hainbat obra interpretatuko ditu, 19:30ean hasita, Patxi Garcia Garmilla organujotzaileak. ■ I.E.

Banderaren, Humboldt hizkuntzalariaren eta organu musikaren inguruko hiru proposamen aukeran

ELORRIO

World Kafean batzeko deialdia, 'Geurien' hitzarmenaren baitan

Urriaren 21ean izango da kafe-eztabaida, 18:00etatik 20:00etara plazan

Euskararen erabilera indartzeko kanpainan, merkatarien eremutik bezeroenera jauzia egin gura dute. Diotenez, "orain arte, batez ere, merkatarien ikuspuntutik" jorratu dute udaleko Euskara Sailak bultzatutako *Geurien* egitasmoa. 2011n bezeroei begira martxan jarritako kanpainaren ildotik, "lanean jarraitzeko beharra" ikusten dute. "Bezeroak euskaraz eskatzen ez badu, saltzaileak ez du zertan ahaleginik egin euskara erabiltzeko", arrazoitu

Bezeroei begira martxan jarritako kanpainaren baitan antolatu dute World Kafea

Dinamizatzaileak proposatutako gaiaren inguruan eztabaidatuko dute

dute. Lan horretan sakontzeko antolatuko dute World Kafea egitasmoa urriaren 21ean, 18:00etatik 20:00etara plazan. Edaria eta mokadua musutruk eskainiko dituzte, gainera. Mahaien bueltan, dinamizatzaileak proposatutako gaiaren inguruan eztabaidatuko dute. "Elorrioko denda eta tabernetan zer hizkuntza erabiltzen dugun edo euskara gehiago erabiltzeko zer egin dezakegun" lako gaiak aztertuko dituzte. ■ M.Onaindia



Bezeroak aktibatzea eta motibatzea dute helburu.

Berdintasun teknikariaren posturako alternatibak

Hautagaitza-prozedura martxan dauka udalak

Bilduko Idoia Buruagak osoko bilkuran galdetu zuen gobernu taldeak berdintasun teknikariaren plaza aterako duen ala ez: "Argitzea komeni da, hautagaiak presatzen ibiliko dira-eta". Ana Otadui alkateak azaldu zuenez, EAJk aurreko legealdian "zalantzan jarri zuen postua egon-

kortzea", eta "inoiz" ez zuten egingdako lanen berri jaso. Hiru alternatiba aztertzen dihardute orain: berdintasuneko zerbitzua auzokomunazgoaren esku uztea, teknikariaren kostua eskualdeko beste udal batzuekin kudeatzea, edo teknikariak beste funtzio batzuk ere betetzea udalean. ■ M.O.

Anbulantzia zerbitzua ezartzea aztertzen

Abuztuan Gurutze Gorriagaz batzartu zen udala, eta "inbertsio handia" litzatekeela adierazi dute

PPko Carlos Garciak hileroko ohiko osoko bilkuran egindako galderari erantzunez, Ana Otadui alkateak esan zuen ambulanzia zerbitzua ipintzea aztertzen dabilatzala, baina oraingoz ez dutela "ezer aurreratuko". Abuztuan batzarra egin zuen alkateak Gurutze Gorri-

Urtero 100.000 euroko aurrekontua edukiko luke ambulanzia zerbitzuak

ko ordezkariekin, eta "inbertsio handia" litzatekeela argitu zuen. Urtero 100.000 euroko aurrekontua edukiko luke; leku bat ere egoitu beharko litzateke.

Espezialitateak PPko zinegotziak medikuntza-espezialitateen zerbitzua Elorriora ekartzea ere eskatu zuen. Astero roko maiztasunagaz, "elorriarren bizi-kalitatea hobetuko litzateke". Alkateak, baina, azaldu zion hori Legebiltzarraren eskumena dela, eta han bere alderdiaren bitartez eskatzeko. Horretarako konpromisoa hartu zuen Garciak. ■ M.O.

LANERAKO FORMAKUNTZA IKASTAROAK

PROFESIONALITASUN AGIRIAK

IURRETA

INSTITUTUA

Olaburu 19 - 48215 Iurreta

Tel.: 94 466 88 00

Faxa: 94 620 28 28

ezarautua@iurreta-institutua.net

	LANBIDE KODEA	ARLOA	IKASTAROAK	MAILA	DATAK	ORDUAK
1	UF 0336	ADMINISTRATIBOA	Finantza sistemen eta kalkulu prozeduren analisia	3	2011/11/07-2011/12/01	40
2	UF 0515	ADMINISTRATIBOA	Kontabilitateko plan orokorra	3	2012/02/27-2012/04/24	90
3	UF 0516	ADMINISTRATIBOA	Kontabilitate aplikazio informatikoak	3	2012/05/07-2012/05/22	30
4	UF 0343	ADMINISTRATIBOA	Soldata ordainsariak, kotizazioak eta diru-sarrerak	3	2012/03/12-2012/05/17	90
5	UF 0344	ADMINISTRATIBOA	Giza baliabideen kudeaketarako aplikazio informatikoak	3	2012/05/21-2012/06/05	30
6	UF 0320	ADMINISTRATIBOA	Testu-tratamendurako aplikazio informatikoak	3	2011/11/03-2011/11/21	30
7	UF 0321	ADMINISTRATIBOA	Kalkulu orrien aplikazio informatikoak	3	2011/11/22-2011/12/22	50
8	UF 1106	AUTOMOZIOA	Aire-girozte sistemen mantenua	2	2011/12/01-2011/12/22	40
9	UF 1106	AUTOMOZIOA	Aire-girozte sistemen mantenua	2	2012/01/09-2012/02/22	40
10		AUTOMOZIOA	Kalteen balorazioa (KK)	2	2012/02/01-2012/02/29	8
11		AUTOMOZIOA	Prestakuntza komertziala eta bezeroarentzako arreta (KK)	2	2012/03/01-2012/03/30	8
12		AUTOMOZIOA	Automobilien banaketa-uhala (KK)	2	2012/02/01-2012/02/29	24
13		AUTOMOZIOA	Automobilien eskema elektrikoak (KK)	2	2012/01/09-2012/01/31	24
14	UF 0876	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozeduren zehaztapen teknikoak	2	2011/11/02-2011/11/30	60
15	UF 0991	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozeduren kostu kalkulua	2	2011/12/01-2011/12/22	40
16	UF 0878	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Tresnak, ekipoa eta makinaren prestaketa	2	2012/01/09-2012/02/09	80
17	UF 0881	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozedurak	2	2012/02/13-2012/03/15	80
18	UF 0879	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketa bidezko piezen fabrikaziorako CNC programen sorkuntza	2	2012/03/19-2012/05/08	80
19	UF 0880	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Txirbil-harroketa bidezko prozesu laguntzaileen fabrikazioa (pneumatika)	2	2012/01/10-2012/02/16	70
20		INFORMATIKA	Web orrialdeen sorkuntza (KK)	2	2012/03/01-2012/03/30	30
21		INFORMATIKA	Eskola 2.0. Ubuntu sistema eragilea (KK)	2	2012/04/02-2012/04/30	30
22	UF 0538	ELEKTRONIKA	Behe-tentsioko instalazio elektrikoek ekipa eta elementuen montaia	1	2012/01/09-2012/02/29	80
23		ELEKTRONIKA	Automatismo elektrikoak (KK)	2	2012/03/01-2012/03/30	24
24	UF 0120	ARRETA SOZIOSANITARIOA	Elikagaien eta tratamenduen banaketa menpeko pertsonen etxeetan	2	2012/03/12-2012/04/26	50
25		ARRETA SOZIOSANITARIOA	Zaintzailea zaindu (KK)	2	2012/02/06-2012/02/17	22
26		ARRETA SOZIOSANITARIOA	Zaintzailea zaindu (KK)	2	2012/04/03-2012/05/10	22
27		GOI MAILA	Goi mailarako sarrera froga	2	2011/10/03-2012/05/30	180

www.iurreta-institutua.net

Tel.: 94 466 88 00

Durungaldean labor

'Euskaraz bizi nahi dut' ekimena Plateruenean

Euskaraz bizi nahi dut ekimenak Durangon euskalgintzan diharduten hainbat eragile batu ditu, jaieran ere euskaraz bizi gura dutela aldarrikatu guran. Plateruenean egingo dute ekimenaren azken pausoa. 'Euskaraz bizi nahi dut' esaldia osatzen jardun dute herritarren aipuak bertan batuz. Kartel osoa-gaz aterako dute familia argazkia, gaur 20:00etan Plateruenean. Herritarrek parte hartera deitu dituzte.

Julen Ugarterentzat Bizikleta Festako saria

Iurretako jaien barruan egindako Bizikleta Festako saria —bizikleta eder bat— Julen Ugartere gazteak irabazi zuen. Iurretako Txirrindulari Elkarteko lehendakari Juan Luis Areitioren eskutik jaso zuen saria.

Urtero legez, Durangoko eta Iurretako bidegorrietatik egindako ibilaldia arrakastatsua izan zen, eta 160 bat lagun batu zituen.



Lapurreta Martzaako baserri batean

Martitzen goizean lapurretan egin zuten Atxondoko Martzaa auzoko baserri batean. Atxondoko leiho batek sartu ziren, eta dena hankaz gora jarri zutela adierazi du etxearen jabeak. Sukaldeko leihotik irten dira lapurrak. Ertzaintzara joan eta salaketa jarri du jabeak.

ABADIÑO



Informazio falta eta arduragabekeria egozten diote udalari.

Muntsarazko auzokideak, kexutik haserrera, garabi bat jausi ondoren

Auzoan garabi bat jausi izanak arduratuta, kexu dira Muntsaratz auzoan

Joan zen asteko eguenean aldameneko eraikuntza lanetara 30 metroko garabi bat jauzteak eragindako ezinegonak bultzatuta, Muntsaratz auzoko lau etxebizitza-bloketako bizilagunek batzarra egin zuten astelehenean.

Eguen gaueko gertakariaren gainean udala isilik egotea salatu eta komunitatearen izenean kexa aurkeztuko dutela iragarri dute batzarrean batutako 20 auzotarrek. "Zorionez ez da ezer larrik gertatu, baina oso kezagarria izan da garabia jauzteak", diote bizilagunek: "Garabia bidegorrian kokatu zuten, beharrezko kontrapisurik barik eta lur bigunegian". Eraikitzen diharduten etxebizitza batera zein eurak bizi diren etako batera jauzi zitekeela garabia ikus-

ten dute auzotarrek. Auzoan lanean diharduen enpresa eraikitzaileagaz udalak "eskuzabalegi" jokatzeko duela salatu dute auzotarrek. Suminduta daudela diote, "udalaren partetik ez delako egon ezelako jakinarazpenik, eta inorez delako komunitateko presiden-

Auzoan lanean diharduen enpresa eraikitzaileagaz udala "eskuzabalegi" dela salatu dute auzotarrek

"Garabia bidegorrian zegoen kokatuta, eta ez zeukan beharrezko kontrapisurik"

teagaz ere kontaktuan ipini: "Kontrara, geu izan gara informazioa eta erantzunkizunak eskatuz udal txerara deika ibili behar izan garena", azaldu dute.

Beste eskariak

Lau etxebizitza bloke hauetako bizilagunek aurretik salaturiko gabeziez ere jardun zuten joan zen asteleheneko batzarrean. Eraikitzen dabilen etxebizitzaren zerbitzurako zaborren edukiontzia euren etxeetatik metro bira ipini dituztela diote, baita eraikuntza lanean eraginda euren etxeetan arrakalak agertu direla ere. Euren bizilekuen ondoko eraikuntza lanetan "gutxieneko baldintzak" bete daitezela eta informazioa eta eztabaia eskatzen dute. ■ I. Esteban

MALLABIA

Klasikoen Rallyak sortu zituen eragozpenekin kexu

Auzobideetan rallyko parte-hartzaileek sortutako eragozpenak salatu dituzte herritarrek udalean

Klasikoen Rallya antolatu zuten orain aste bi Durangon. Parte-hartzaileek, baina, Durangaldeko beste herri batzuk ere bisitatu zituzten. Mallabian, Berano Txiki eta Berano Nagusiko auzokideek udalera jo dute euren kexa adierazteko. Izan ere, auzokideen esanetan, jakinarazpen barik auzobideak

Auzokideen esanetan, rallyko 78 kotxe inguru ibili ziren auzobideetan gora eta behera, ordu bi eta erdian

zeharkatu zituzten 78 kotxe inguruk, "trafiko horrek sortzen duen arazoekin". Traktore eta kotxeekin "bide estu hauetatik pasatzeko zailtasunak" izan zituztela salatu dute auzotarrek: "Ordu bi eta erdi inguru ibili ziren aurrera eta atzera. Traktorea pasatzean ez dira bidean kabitzen". Rallyzaleen "jakinarazpena behintzat" jaso behar-koketela irizten diote auzotarrek. Gaineratu dutenez, leku batzuetan abiadura handian igaro ziren autoak. Bihurgune batzuetan ez dela ezer ikusten eta arrisku handia ikusi dutela diote auzotarrek. Bidegurutzeetan ez dutela inor jarri ere azaldu dute. ■ J.G.

GARAI

Hirigunean eta Momoition farolak aldatzen hasi dira

59.444 euroko aurrekontua dauka egitasmoak

Joan zen uztailan udalak behar-erleitu eta gero, martxan dago jadanik hiriguneko eta Momoitionko San Joaneko farolak aldatzeko egitasmoa.

San Joan Momoition inguruan farola zaharrak kendu eta berriak ipintzen dihardute; hiriguneko argiztapenari dagokionez, kasu gehienetan bonbila aldatetan

oinarrituko da, farola batzuk osorik aldatuko dituzten arren. Kontsumo txikiko LED argiaren erabilpena bultzatu du udalak behar hauekin guztiekin.

59.444 euroko aurrekontuagaz burutuko dute proiektua, eta ez dute iraungo hilabete baino gehiago, udal arduradunek azaldu dutenez. ■ M.O.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
Drekozinak

 PLATERUENA	DATOZENAK	
	SICK OF IT ALL + SAID HULUD + ALL FOR NOTHING Urriak 21, OSTIRALA 21:00etan. Sarrera: 16-19€	 DANTZA IKUSKIZUNA DURANGON FOLK
 kantulagun	kantulagun Urriak 27, OSTEKUNA. 20:00etan. Urte osoko izen-ematea: 15€ Kantu liburuxka eta 2 KD jasoko dituzu.	GRUP FOLKLORIK D'ES BORN (menorka) KRISKITIN Urriak 30, DOMEKA 18:30etan. Doan.
	aiko erromeria Urriak 29, ZAPATUA 19:00etan. Doan.	 ENVY (japonia) + YAKUZI Urriak 31, ASTELEHENA 21:30etan. Sarrera: 14-17€ www.plateruenasarrerak.net

kantuaren kantoia

kantuaren kantoia

kantuaren kantoia



kantuaren

kantoia

Azaroko ostegunetan, 20:00etan

berbaldi musikatuak
Jonan Hernandezek gidatuta



GORKA URBIZU
(herri txarrak)
Azaroak 3

EÑAUT ELORRIETA
(ken zazpi)
Azaroak 10

MAITE ARROITAJAUREGI
(mursego)
Azaroak 17

INES OSINAGA
(gose)
Azaroak 24



BERBAZ >

“Nork bere mugak identifikatzea aldaketarako lehenengo pausoa da”

Barneratuta ditugun jarrera negatiboak aldatzeko ‘Jabekuntza eta PNL’ ikastaroa ematen dabilta Mallabian.

Errudun sentimentua, besteak zaindu gura izatea, gauza guztietara ezin helduta gora eta behera ibiltzea... norberak bere buruan dituen sentsazioak izaten dira, barne komunikazioagaz lotutakoak. Pentsamendu, ekintza eta jarrerak aztertu eta norbere mugak identifikatzea da PNL Programazio Neurolingustikoaren helburuetako bat. Emakume talde bat ikasitakoak ‘berprogramatzeko’ ikastaroa hartzen dabil Mallabian. Loredi Salegi udaleko ongizate arduradunak antolatu du ikastaroa. Bera ere ibiltzen da PNLko ikastaroak ematen.

Norberaren gaitasunekin zerikusia daukan ikastaroa da ematen zabilatzatena. Ahalduntzea norberak boterea edukitzeko landu beharrekoa da; herri mailan, familian, bikote hartu-emanetan... eta PNL Programazio Neuro Linguistikoa horretarako erraminta da. PNL-k barne komunikazioagaz zerikusi handia dauka; helburua zelan pentsatzen dugun eta pentsatzen duguna zelan komunikatzen dugun aztertzea da, eta beste modu batera pentsatu eta komunikatzea, jarrerak aldatuta.

“Gure gaitasunak mugatzen ditugu ‘Ezin dut hori egin’ moduko pentsamenduekin”

Jarrera baikorretara begirako filosofia da. Diskurtso positiboen falta somatzen duzu?

Kontua ez da diskurtso positiborik ez dagoela; normalean, negatiboan pentsatzen dugula baino. “Desastre bat naiz”, “Ezin dut”, “Zaila da”... eta antzekoak pentsatzen baditugu, ez gara konturatzen gure gaitasuna mugatzen gabiltzala pentsamendu horiekin. Blokeoa egoten da; ez gara la gai pentsatzen dugu. Normalean pentsamendu negatibo horiek izaten ditugu, eta horrek bizimodu mugatua sortzen du. Ezin dugu ezer egin “Ezin dut” edo “Ez naiz gai izango” moduko pentsamenduak izaten baditugu. Emakumeok, batez ere, genero kontuagatik, horrelako pentsamendu asko ditugu.

Generoagaz datorren zerbait dela argi ikusten duzu?

Bai, gure hezkuntzak eragin handia du. Gizonek gauzei ez dizkiete horrenbeste buelta ematen. Errudun sentimentua, adibidez, normalean



“Hezi gaituzten moduagatik, emakumeok arlo guztietan besteen gustua egitea gura izaten dugu, eta txarto irtenez gero errudun sentitzen gara”

emakumeok edukitzen dugu. Borondatezko lan asko egiten dugu emakumeok, pentsatu barik horren ordainez errekonozimendua jaso behar dugula. Behintzat, gure buruari meritu hori aitortu behar diogu. Urte asko daramatzat emakumei formazioa ematen, eta konturatu naiz emakumeon bizimoduan eta sentitzeko eran gauza negatibo asko ditugula barneratuta.

Zer adibidez?

Errudun sentimendua, ezintasuna, traba egiteko beldurra, besteen gustua egiteko gogoa, besteak zaintzea... Denengan pentsatu behar dugu, guran izan ezik. Orain arte egin ditugun beste ikastaroetan ere ideia hori landu dugu. Ikastaro bat, adibidez, zaintzari eta norbere zaintzari buruzkoa zen. Beti da: “Denak ondo egon behar dira, baina ni zer?

Loredi Salegi •

- Mallabiko Udaleko ongizate arduraduna da. Genero ikuspuntu formazioa ematen du.
- Elgoibartarra.

“Jarrera aldatuta, bizi behar ditugun gauzak beste modu batera biziko ditugu”

Nork pentsatzen du ni zelan nagoen?”. Kontziente bagara zelan sentitu eta pentsatzen dugun, guretzat egokiena zer den erabaki ahalko dugu, eta ez besteek espero dutenari begira egon. Errealitatea ikusteko ditugun betaurrekoak kendu behar ditugu emakumeok. Sarri pentsatzen duguna zera da: “Nik hau egin behar dut, eta ez badut egiten errudun sentituko naiz”.

Bizitzako arlo guztietan gertatzen da hori?

Azkenean ardura asko dauzkagu eta pentsatzen dugu onenak izan behar dugula etxean, ama moduan, bikotean, lanean... leku guztietan. Eta ezin dugu ‘superwoman’ izan arlo guztietan, eta ondo sentitu eta denbora eduki. Arlo guztietan besteak ondo sentitzea gura dugu, eta txarto irtenez gero, errudun sentitzen gara. Jarrera aldatzea da gakoa: bizi behar ditugun gauzak beste modu batera biziko ditugu jarrera aldatuta. Zer edo zer gaitza irudituz gero, ezin dugula egin ikusi barik erronka izan daitekeela eta ikasi egingo dugula ikusi dezakegu. Aukerak ikusi behar ditugu gaizki irten den zerbaitetik ikasgai onak ateratzeko.

Ikastaroak eragiten dituen onuretatik zein nabarmenduko zenuke?

Bakoitzak bere eskemak dauzka, eta hori apurtzen denean itzela izaten da. Nik ikastaroan esan dezaket errudun sentitzen garela, halako eta besteko jarrerak izaten ditugula... eta parte-hartzaileetako bakoitzak bere bizitzan detektatu egiten ditu kontu horiek. Besteei trabarik ez egiteko ardura badaukat, arlo guztietan eragiten dit horrek. Garapen pertsonaleko ikastaroetan norberaren mugak zeintzuk diren ikusten dugu, eta hori ikustea aldaketarako pausoa da. ■ A.Ugalde

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Rock gordina da maketako kantak lotzen dituen haria”

Durangoko jaietan, San Fausto egunaren bezperan, eskaini zuen **The Mockers** hirukote durangarrak kontzertua txosnagunean. Kaleratu berri duten maketari buruz egin dugu taldekideekin berba



Iban Gorriti

Non eta noiz egin duzue grabazioa?

Grabaketa uztailaren amaieran eta irailaren hasieran egin dugu, Laudion. Bertako lagun batek estudio txiki bat muntatu du bere etxean, eta bere laguntza eskaini zigun. Lagun arteko kontua izan da.

Zelako sentsazioagaz geratu zarete diskoa amaitu duzuean?

Egia esanda, badakigu soinu aldetik hobeto irten daitekeela, ez dugu-eta benetako estudio batean grabatu. Hala ere, argi daukagu aurrerago helduko dela estudiora joateko garaia. Ez daukagu presarik; behetik hasi eta hortik aurrera egin behar izaten da. Jendaurrean aurkeztu gura dugu diskoa orain, eta taldea ezagutzera eman, kontzertu gehiago lortu ahal izateko.

Non eskuratu ahalko du jendeak diskoa?

Arlo honetan oraindik ez gara asko mugitu, baina Durangoko Herriko Tabernan, Berbaron, Gozotxorietan, Elorrioko Portalekuan... edo gugaz zuzenean kontaktatuta eskuratu daiteke maketa.

Zelako kantak dira, letra zein musikari dagokionez, diskokoak?

Maketa eklektikoa atera zaigu. Rock gordina da abestiak lotzen dituen haria, baina abesti bakoitzak bere ukitua du. Musika eskandinabiarrak, 70eko hamarkadako rock klasikoa, bluesa... denetarik aurki daiteke. Letrak gizakiok bizitzaren aurrean dugun jarrerari buruzkoak dira gehienbat: lokartuta gaude, arazoen aurrean ez dugu ezer

“Gizartearen aldaketa norberaren aldaketan oinarritu behar dela diogu, besteak beste, kantetan”

egiten, eta dena datorkigun moduan onartzen dugu. Politikariekin eta sistemagaz sartzea erraza da, baina, gizartearen aldaketa norberaren aldaketan oinarritu behar dela uste dugulako, guk gure jarrera kritikatzeko dugu, umore puntu batez. Mundua aldatzea ezinezkoa bada, norbanakoak bere jarrera aldatzeko aukera badauka.

Aurretik Durangoko Cuarto Asalto taldean jardundakoak dira Gartzia eta Asier taldekideak, Elorrioko Old Glories taldean aritutakoak da Ritxi, eta The Mockers taldeagaz “burla egiten” 2010etik dihardu Durangoko hirukoteak. Kontatu digutenez, umetatik ezagutzen dute elkar; eskola berean ikasi zuten, rocka gustuko zuten, elkartu egin ziren.

Interneten, www.myspace.com/themockersband helbidean, egiten dutena ‘mock’n’roll’-a dela esaten dute: eskualdeko punk jatorria ahaztu barik, baina haratago joanez, eta desagertutzat jotzen zen rock estiloaren gainean blues eta psikodelia lako doinuak jorratuz sortzen ei dituzte euren kantak. Ingeleseztan eta euskaraz sorturiko kantak dauzkate myspace-entzungen: *Zaratustra*, *Malabaristak*, *This is the absurd* eta *Deabrua nauk* ize-nekoak, besteak beste.

Eguaztenean, Durangoko jaietan, txosnagunean eman zuten kontzertuari buruz galdetu diegunean, amets batez egin digute berba: “Taldea sortu zenetik egin

“Eskualdeko punk jatorria ahaztu barik”, haratago joan guran



Iban Gorriti

dugu Durangoko txosnetan jotzeagaz amets, eta azkenean heldu zaigu aukera: berezia da Sermond’s-en ondoan jotzea ere, gainera, betidanik izan direlako erreferentzia guretzat”.

Taldea 2010ean eratu zenutela irakurri dugu, eta laster hasi zinetela maketa hau prestatzen. Prozesu azkarra izan da.

Kontzertuak lortu ahal izateko, abesti barik ez zara inor. Ez gara kexatzen, taldea sortu zenetik kontzertu dezente eman dugulako, baina maketa bat izateak aukera gehiago ematen dizkizu. Horregatik uste dugu grabaketa erabat beharrezkoa izan dela. Jendeak erreferentziaren bat izan behar du, eta geneuzkan kantekin pozik geundenez, ez genuen birritan pentsatu.

Zelakoa izaten da kantak sortzeko modua?

Ideiak joan eta etortzen dira, abisu barik: egon zaitezke hilabete gustuko duzun erritmo edo abestiren bat egin barik, eta aste-bete hiru sortu. Gure kasuan, hirurok gitarra jotzea abantaila da: edonork ekarri dezake ideia nagusia lokalera, eta hirurok artean ideia horri forma ematen diogu. Hiru ikuspuntu desberdin izateak asko laguntzen du kantak sortzeko prozesuan. Abesti sendoak ateratzen dira horrela.

“Abantaila da hirurok gitarra jotzea: edonork ekarri dezake ideia lokalera eta gero elkarrekin landu”

Zelan elkartu zineten talde honetan?

Kontuak ez dauka misterio handirik: rocka gustuko duten hiru gazte batzea ez da gaitza. Elkartu, proba egin eta ondo sentitu gineenez, aurrera jarraitu genuen.

Badiharduzue kanta berriak sortzen?

Beti gabiltza ideia berrieekin, eta soinu desberdinak bilatzen. Abesti berri batzuetarako ideiak garatu ditugun arren, azkenaldian eguazteneko kontzertua prestatzen ibili gara, eta ez diegu denbora askorik eskaini. Hala ere, oso garrantzitsutzat daukagu ahal den heinean abesti berriak sortzea, errutinaz ez jausteko. Kontzertua eta gero hasiko gara konposizio berrieekin. ■ I. Esteban

“Musikagaz gozatzen jarraitzea da gure desio bakarra”, erantzun digute, etorkizuneko helburu eta amets bezala galdetu diegunean: bariku gauetako entseguak edukiz gero, ez ei dute besterik behar.

MUSIKA > DISKOA



Zebel boskotea, lehenengo diskoa izango dutenaren grabazioa burutzen

Iditu Records estudioetan dabilta urte amaieran kaleratuko duten hamabi kantako diskoaren grabaketa egiten

Tributo a Barrikada eta MPB taldeen jardundakoak dira Zebel taldean orain hiru urte batu ziren lau musikariak. Urtebete geroago, orain urte bi sartu zen Joannah, taldeari ahotsa jartzera. Bostok dihardutenetik sorturikoak dira taldearen lehenengoa izango den diskorako hautatu dituzten 12 kantetako gehienak.

Interneten duela urtebete ingurutik dauzkate lokalean grabatu zituzten zenbait kanta entzungai, www.myspace.com/zebel-rock gunean. Irailetik, baina, Durangoko Iditu Records-en estudioetan dabilta kantak grabatzen: asteburuetan eta jai-egunetan egiten dituzte abendurako prest eduki gura duten diskorako grabaketak.

Lehenengo diskoan eskainiko dituzten kantak, bakoitza era batekoa direla kontatu digu Alberto taldekideak. "Rockaren inguruko kantak daude, metaletik gertua-

Lehenengo diskoan eskainiko duten kanta bakoitza molde batekoa dela aurreratu digute

Kanta gehienen doinu indartsu eta gogorrak "asko lasaitu eta leuntzen" ditu ahotsak

go daudenak, baina baita balada geldoagoak ere...", diosku. Taldekide bakoitzak era bateko musika omen du gogoko, eta bosten nahasketa dira Zebel-en kantak: bakoitzak bere estiloa ekartzen du.

Kanta gehienen doinu indartsu eta gogorrak "asko lasaitu eta leuntzen" ditu Jo abeslariaren ahotsak, Zebel taldeko Alber gitaristak azpimarratu duenez: "Ondo kantatzen duen emakumezko ahots batek oso atsegingarri egiten ditu kantak".

Baxu-jotzaileak idazten ditu Zebel taldean letrak: esanahi zuzen, argi eta esplizituak barik, entzulearen interpretaziora zabalik dauden letrak idazten ditu. Lehenengo diskoan bilduko dituzten kantengaiak, eguneroko bizitzako kontuei eta sentimenduei buruzkoak dira. Ingelesezt kantatzen dute.

Diskoaren kopia askorik ateratzeko asmorik ez daukatela esan digute Zebelek kideek; Interneten, sarearen bitartez laster zabalduko dela badakite. Aurreikusit dutenaren arabera, urte amaieran diskoa prest dagoenean, kanta berriei eta kontzertuei helduko diete berriro. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza
Bertsolaria

Sarri-sarri

Azken asteotan gori-gori daude literatura sariketak. Literatura artea da, hitzen arte askea; beraz subjektiboa da sortzen duenaren zein kontsumitzen duenaren aldetik. Sariketak, oster, neurketa mugatuak dira; epaimahai baten kriterioei jarraituz, lan bat best seller izatera edo apalean hautsa hartzera eroan dezaketenak.

Konturako, hautagaien artean hainbat urtez egon ondoren, aurtengo jaso du literaturaren Nobel saria Tomas Tranströmer poeta suediarra. Beste izen handi asko, oster, hautagaien zerrendan eskegita geratu ziren betiko: Proust, Nabokov, Tolstói edo James Joyce, adibidez. Esan gabe doa, artista baten balioa ez dagoela jasoriko sariaren gorabeheran.

Tranströmer-en kasua deigarria da; hemiplegia baten eraginez duela 20 urtetik berba egiteko zailtasun handiak daukaze. Gurean be ezaguna da ahotsik izan ez arren, hitza eta zeresan handia daukazen beste idazle bat. Baffle haren barruan gordeta ihes egin ebanetik, bereziak dira askorentzat Sarriren berbak, polemikoak beste hainbesterentzat.

Euskara eta berberea lako hizkuntza txiki bi batzen dituen liburu handi bat bihurtu da oraingoan eztabaidagai. Jaurilaritzak ez ei dio Sarriandari Euskadi Sariagatik jagokan diru-saria emongo, "justiziaren aurrean bere egoera erregulatu artean".

Sarri-sarri gertatzen dira horrelakoak Euskal Herrian. Eskerrak iurretarrari diogun estimua kajoi batean giltzapetu ezin izango duten!

IRAKURKETA > LEHIAKETA

Gaztetxoei zuzenduriko irakurketa lehiaketa Elorrion

Hamazazpigarren biderrez antolatu dute irakurketa lehiaketa liburutegian



Urriaren 10ean hasi zen eta abenduaren 12an amaituko da Elorrioko Liburutegian hamazazpigarren urtez antolatu duten Irakurketa Lehiaketa. Hamazortzi urtetik beherako elorriarrei zuzendurikoa da lehiaketa, eta Elorrioko Liburutegiko katalogotik bakoitzari dagokion adin-esparruko biliburu aukeratu eta irakurtzea da parte-hartzaileek bete beharko duten baldintza nagusia. Irakurketa burututa, liburu hartzekoan emango dieten fitxa bete beharko dute.

Hamazortzi urtetik beherakoei zuzendurikoa da liburutegian antolatu duten lehiaketa

Ipuin kontalaria eta filma urriaren 24ko Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko:

leek bete beharko duten baldintza nagusia. Irakurketa burututa, liburu hartzekoan emango dieten fitxa bete beharko dute.

Abenduaren 16an, parte-hartzaile guztiak gonbidatuko dituzten sari banaketa jaia burutuko dute. Aurkezturiko fitxen kopurua eta kalitatea kontutan hartuta banatuko dituzte egun horretan sariak.

Liburutegira datozenak

Urriaren 24an ospatzen den Liburuaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, hainbat ekitaldi antolatu dute Elorrioko Udal Liburutegian. Besteak beste, Apika taldeko Leire Basarrateren eskutik ipuin kontaketa saioa izango da, urriaren 21ean, 17:00etan, liburutegian bertan. Lau eta bederatzi urte bitarteko umeei zuzenduriko liburuari eta liburutegiari buruzko saioa da *Mozorro jaia* izenagaz aurkeztu dutena.

Urriaren 24an, 18:00etan, Iturri kultur etxean, bestalde, ume baten liburutegiko abenturari buruzko *El guardian de las palabras* filma emango dute.

AURKEZPENA > HAUR LITERATURA

Peru Magdalenaren ipuina argitara Elkarren irakurle berrien sailean

Martitzenean aurkeztu zuten Magdalenak idatzi duen 'Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean'



Ilustrazioekin nahasketa oso polita lortu duzue.

Bai, horretan asmatu dugula uste dut. Elkar argitaletxeak proposatu zidan Josu Mitxelenak ilustratzaileraz azpeitiarragaz lan egitea. Perspektibagaz asko jokatzeko du:

“Bere irakurketa gehitu dio marrazkilariak istorioari”

umeen ikuspuntutik, handiagoak dirudite espazioek, denbora luza-tu egiten du... Bere irakurketagaz asko eman dio istorioari: kolore ilu-nagaz hasten da, eta ipuinak aurre-ra egin ahala argitzen doa marraz-kien kolorea...

Zelan sortu da liburua argitara-tzeko aukera?

Noizean behin zertan nabilen gal-detzeko deitzen didate argitaletxe-tik, eta horrela esan nien Txomin-txo eta Perutxo hauen hainbat istorio neuzkala idatzita. Bidali nizkien, eta batezaz probatzeko proposamena egin zidaten.

Zure eta anaiaren izenak ipini dizkiezu protagonistei.

Hasieran beste izen batzuk ipini nizkien, baina gero, anai bikiak izan-nik, gure izenak ipintzea pentsa-tu nuen zela proposena.

Badarabilzu umeei zuzenduriko beste lanik eskuartean?

Pertsonaia hauekin beste bi isto-rio idatzi nituen duela gutxi, eta

beti edukitzen ditut ideia berriak; beti nabil ideiak apuntatzen.

Hizkuntza edo egiturak umeen-tzako osatzen dituzu?

Dibagazioetan ez naiz oso urrun joaten umeentzako istorioetan, eta gehiago da ekintzak konta-tzea. Baina ez da erraza esaten...

Esaldi laburrak erabiltzen dituzu umeentzat idaztean?

Bai, baina, dena den, egia da oste-rantzean ere ez ditudala esaldi luzeak idazten nik... (barrez).

Istorioren interpretazioetako bat izan daiteke askatasunari diogun beldurraz ari zarela...

Bai, izan liteke, nahiz eta nire kasuan, ideia bat transmititzeko asmoa ez dudan aurrez oso pen-tsatuta edukitzen. Umeei zuzen-duriko istorio honen kasuan, gehiago da umetan bizitzako bel-dur eta amegaitzako kontatzea.

Inguruko umeen jarrera eta egoe-retan oinarritzen zara ala zeu ume zineneko akorduan?

Egia esan, ez dakit oso ondo... Ala-ba daukat hiru urte eta erdikoa, eta haren gauzetan ere badihar-dut: berarentzat ekartzen ditut ipuinak, eta mundu eta adieraz-pide horietara gerturatu naiz.

“Ez dut aurrez oso pentsatuta edukitzen zein ideia transmititu gura dudan”

Memorian fresko daukazazu ume-tako sentazio horiek?

Bai, umearoa oso sasoi bizia dela-ko: momentu pozgarriak eta ilu-nak ere oso indartsuak dira ume-tan. Inseguridadeaz eta beldu-rrez, gauzak *deskafeinatu* barik gura izan dut jardun. Umearotik bizirik atera eta honaino ailegatu gara; ez da hain txarra. ■ I.E.

LEHIAKETA >

Durangaldea, gazteen kameren ikuspegitik

Bigarren urtez antolatu du ikus-entzunezkoen *Durangaldea bizi* lehiaketa Gerediaga elkarteak, 13 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta. “Ondare gaztea” ipi-ni dute aurten lanak aurkezteko gai moduan. Gerediaga elkar-teak azaldu duenez, “gaztetxoek Durangaldea ezagutzea eta Durangaldea zer ikuspegi duten jakin eta plazaratzea da” lehia-ketaren helburu nagusia.

Bigarren urtez antolatu du ikus-entzunezko lehiaketa Gerediagak

Azaroaren 11ra arte aurkez-tu daitezke lanak, eta Durango-ko Liburu eta Disko Azokan emango dute jakitera zer taldek jaso duen abentura ekintzen saria. Lehiaketaren oinarriak webgunean eta iazko bideo ira-bazlea elkartearen *youtube* kana-lean ipini ditu Gerediagak. ■ I.E.

ANTZERKIA >

‘Abuelita de Batman’ eta artista berriak

Abadiñoko Banarte antzerki tal-dearen emanaldi bana dauzka-gu urriaren 15ean Berriz eta 21ean Abadiñon. Durangaldean lehenago ere eskaini duen *Abue-lita de Batman* antzeztuko dute 15ean, 20:00etan hasita, Berriz-ko kultur etxean: Alejandro Lico-na autore mexikarraren lanean oinarrituta ekainean Bilbon aur-keztu zuten umorezko obra kri-tikoa da *Abuelita de Batman*.

Urriaren 21ean Abadiñoko Txanporta kultur etxean eman-go du Banarte antzerki taldeak bakarrik eta emanaldia: umorez-ko bakarriketak eskainiko dituz-te Bego García, Loli Reñón, Rafa Herce eta Fernando Borge bete-ranoek, bakarriketak lehenen-goz eskainiko dituzten beste lau antzezlegaz batera. ■ I.E.

“Idatzi ahala joaten naiz topatzen eta istorioagaz jarraitzeko hariari tiratzen”



Osterantzean ere ez dituela esaldi luzeak erabil-tzen eta *Txomintxo eta Perutxo bakarrik etxean* honetan ere, ekintzetara, apaindura gutxi erabil-tzera jo du idazle durangarrak. Aurretik, bere tes-tua eta Iraia Okina iurretarraren ilustrazioak dauz-

kan *Ilania* argitaratu zuen umeentzako literatu-raren atalean Magdalenak. Martitzenean, Donos-tian aurkeztu zuten ipuina ere irakurle berrien sai-lean zabalduko du Elkar argitaletxeak.

Orain urte pare bat kaleratu zuen *Hutsik* libu-rua lako olerkigintza lanak eta haur literaturako piezak sortzeko prozesuak ez dira “diruditen bes-teko prozesu desberdinak”, Peru Magdalenaren ustez: “Sekula ez dut aurrez gehiegi planifikatzen, eta idatzi ahala joaten naiz topatzen eta jarraitze-ko hariari tiratzen”.

Elkar argitaletxeagaz zabaldu aurretik, besteak beste, alabagaz probatu du *Txomintxo eta Peru-txo bakarrik etxean* ipuina, egileak kontatu digu-nez: “Ez zitziola gustatu esan zidan”. Abadiñon eskolak ematen egon zenean ere irakurri omen zien umetxo batzuei istorioa, eta deneriko erreak-zioak sortu ei zituen. Umearoko beldur eta aben-tura txikien kontakizuna dira liburuko Magdale-naren berbak eta Mitxelenaren ilustrazioak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



URRIAK 21 21:00etan
SICK OF IT ALL +
SHAI HULUD + ALL FOR NOTHING
KONTZERTUA. Sarrera: 16-19 euro.



URRIAK 27 20:00etan
KANTULAGUN
KANTUZALEEN TXOKOA
Urte osoko izen ematea: 15 euro.



URRIAK 28 20:30ean
7. URTEURREN EKITALDIA
Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



SÓLALA
Pez en raya

Urriak 22 • 20:00

San Agustín
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA



artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hizzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Gogoeta II

Zergatik idazten dugu? Hainbat idazlek euren iritzia eman dute arrazoi ezberdinak argudiatuz. Irizpide bakoitzak beretzat balio du, baina norberak pentsatu behar du zergatik idazten duen, eta hona hemen nire arrazoia.

Nire burua igogailu baten barruan kokatzen dut idazten has-ten naizenean, goiz euritsu bateko urguilua pazientziatik urruntze-ko xurxulatzen dion ahots misteriotsua bezalaxe. Horrela manten-zen naiz istant batzuetan, laster zalantza izpiak sortzen dira.

Eten da esaldia berezko abiadurarengatik, bigarren puntu eta aparte osatu da, ez dago prestaturik, oinarri falta nabarmena da. Hirugarren atalera salto egiteko gauza ez naiz, bertan geratu naiz, igogailu matxuratuan, bigarren solairuan, argia apurka-apurka itzaltzen den bitartean.

Gazte batek seigarren solairutik dihardu botoi joka. Behin eta berriz jotzen du, haserre bezala, baina ez du pentsatzen. Kolpearen eraginaren zain dago, zortearen eraginaren zain, tokitik mugitu gabe.

Bosgarren solairuan erosketak egitera doan etxeko andrea dago geldirik, goiko pisuko gaztea entzuten. Konturatzen da alferrik dagoela itxaroten, gazte horrek berak baino lehenago joko zuela tin-brea eta igogailua lehenago izango zuela, beraz, eskaileratik behe-ra jaisten ditu bere hanka lodiak, zainak handituta izan arren.

Hirugarren pisuan hamasei urteko neska bat txakurrarekin etxe-tik irten da, txakurra gelditu gabe eskaileratik behera abiatu da ari-neketan; izan ere, kaka egiteko premia du. Behin eskaileratan utzi zuen oparia, eta jabearen zigorra ez zen makala izan; orain, berriz, kaleko lehen arbolaren ondoan liberatu ohi du.

Hornago ni igogailuaren barruan, ez gora ez behera. Nire urgui-luak berriz esaten dio pazientziari: alde hemendik betirako; biga-rren abisua izan da. Oraindik urguiluak ez du bere indarretan sines-ten, zalantza izpiak hegaz datoz geziak bezalaxe.

Ramon Castillo Gomez

Klik batean @



Txakur-kakak umeen parkean

San Inazio auzunean, Durangon, ateratako argazkian txakurren gorotzak ikusi daitezke umeen parkean. Sarritan kexatu dira ber-tako erabiltzaileak "garbitasun gehiagoren premia dagoelako".

Sei hankako mahaia



Idolia Agorria
PSE-EE

Marmitako goxoa

Hainbat modu daude marmi-takoa prestatzeko, baina kon-turik garrantzitsuenak da mina eta goxoa izatea –ez geza, ale-gia–, eta atuna heze-heze ego-tea beti.

Marmitako lehiaketa da jaietan dagoen jarduerarik poli-tenetako bat. Urtero, gero eta bikote gehiagok ematen du ize-na, parte hartzeko eta gure tra-dizioko ohiko jaki bat presta-tzeko. Gainera, urtero, gero eta jende gehiago geratzen da baz-kaltzen, hala gazteak nola hain gazte ez direnak. Era guztiet-a-ko koadrilek erabakitzen dute gure jaietako egun bat ekital-di gastronomiko honetan iga-rotzea, eta giroa apartekoa iza-ten da.

Marmitako lehiaketa da jaietako jarduerarik politenetako; kanpoan inor utzi gabe egin behar genuke

Tradizioz azokan egin izan da bazkaria, baina toki hori txiki-gegi geratu da. Aurren, iaz bezala, marmitako lehiaketa izena emanda zeuden koadri-letako asko kanpoan geratu dira. Guztira, 144 bikote eman dute izena lehiaketa parte hartzeko, eta 55 entzat baizik ez dago tokia. Jarduera hau ez da garestia. Aldameneko beste herri batzuek ere antolatzen dute –esate baterako, Zorno-tzak–, baina kanpoan inor utzi gabe, eta Durangon ere horixe egin beharko genuke.

Bitxikeria gisa: aurreko edi-zioko irabazleak kanpoan gera-tu dira, beste koadrila asko bezala. Gurea ere bai, eta iaz laugarren postuan geratu ginen. Hala ere, gure koadrila-ren ustez, zera da garrantzitsu-na: elkartzea, jakia prestatzea eta jatea, ez irabaztea; aurren, aurkeztuz gero, irabazi egingo genuke... "Horregatik utzi gai-tuzte kanpoan". Gora Sanfaustoak!

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko urriaren 14a - 10. urtea - 432 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onandia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KIROLAK >

“Euskadik maila itzela izan du, baina belaunaldi berria falta da”



Virginia Sagardui Durango Ilarduya entrenatzen dabil, Jokin Azpitarte, Eider Alberdi eta Olatz Fernández de Arroiabegaz batera.

Virginia Sagardui (41 urte, Durango) Durango Ilarduya emakumeen taldeko entrenatzailea da. 2012an hasiko duten ligarako jokalariek behar dituzte. Jokalari eskasia, edozelan ere, ez da DRTren arazoa bakarrik, Euskal Herri osoari eragiten dio.

Hiru lagun artean entrenatzen duzue taldea...

Jokin Azpitarte, Eider Alberdi eta hiruror artean. Jokinek esperientzia handia du; nire entrenatzailea ere izan zen. Eider jokatzaren aritu da oraintsu arte, eta zeregin berriak esperientzia hartzeko eta ikasteko balioko dio. Laster lantalde honetara Olatz Fernández de Arroiabe batzea ere itxaroten dugu, Euskadiko zein Espainiako selekzio jokalaria izana. Ni Euskadiko hautatzaile izan naiz azken urte bietan, eta hauxe da nire lehenengo urtea Durango Ilarduya entrenatzen.

Aurten zenbat jokalarik daude emakumeen taldean?

Hamar bat izango gara guztira, eta horietako hiru-lau dira berriak; denak hasiberriak, aurretik errugbian jokatu gabeak. Oraindik entrenamendu gutxi egin dugu, baina gustura daudela uste dut eta ederto egokitu dira taldera.

Jokalari falta ez da DRTren arazoa bakarrik, Euskal Herri osoa baizik. Zergatik ote da?

Emakumeen errugbian kategoria bakaria dago, nagusia. Beharagoko mailarik ez dago, haur

kategorietara arte; maila horretan neska-mutilek elkarrekin jokatzeko dute. Horrela gaitzagoa da gaitzagoak nagusien taldera heltzea: salto handia dago haur mailatik nagusietara. Orain arte jokalarik onak egon dira emakumeen errugbian, eta garaipen inportanteak lortu dituzte, baina belaunaldi berria falta da. Ez dakit erantzukizuna norena den; klubena, federazioena edo biena: hori aztertu beharreko kontua da. Euskadik maila itzela izan du. Iaz Selektzio Autonomikoen Espainiako Txapelketan bigarren geratu ginen, eta orain urte bi irabazi egin genuen; diodanak kontrae-sankorra dirudi, baina hori da gertatzen ari dena.

Euskadiko Rugby Federazioa jokalarien kontzentrazioak egiten hasi da emakumeen errugbia sustatzeko. Hernanin izan ziren lehenengo topaketak. Zelan egon ziren?

Espero baino jende gehiago batu zela esan dute. Alde batetik, entrenamendu saioak egin dituzte, alderdi tekniko zein taktikoa lantzeko. Baina kontzentrazio horiek jokalariek eta taldeek elkar ezagutzeko topagune izan daitezkeen ere antolatu dituzte.

Gertatu daiteke herri batzuek taldea osatzeko jokalarik nahikoa ez izatea, baina arazo bera duten beste batzuekin elkartuz gero, posible izan daiteke taldeak sortzea. Gero talde horiekin torneo bat egitea da asmoa, lehiatzeko aukera izan dezaten. Ikusiko dugu asmoak aurrera egiten duen. Hala ere, Federazioaren ekarpenagaz batera, klubetan ere lan egin beharra dago.

Durango Ilarduyak Sukia errugbi eskola du.

Gazteen trebakuntza oso garrantzitsua da guretzat, hortik datozen lagan gure jokalariek berriak. Arlo horretan lan handia egiten da. Okerrena da eskolan ez dugula neska askorik. Futbolak eta saskibaloiak indar handiagoa dute.

Zelan konbentzitu dezakegu errugbian hasi ez hasi dudatan dagoen neska bat?

Kirola egiteko modu ona da, osasuntsua da. Gainera, egindako lagun talde bat aurkituko du, eta ez nesken artean bakarrik, baita mutilekin ere. Lehiatzeko taldea osatu gura dugu, baina baita ondo pasatzeko taldea ere. Astelehenetan, martitzenetan eta barikuetan, 19:00etan entrena-

tzen dugu Arripausuetan, eta hantxe bertan eman daiteke izena; Rugby tabernan ere eskatu daiteke informazioa. Gutxienez hamabi jokalariko modalitatean jokatu gura dugu, gaitz dagoen arren. Une honetan, orratzekin hartuta dago taldea, egia esanda. Dena dela, ez dugu mezu negatiborik ematerik gura; gu itxaropentsu gaude eta taldea izango dugun konfiantza dugu.

Euskadiko Selektzioa hautatzaile izan zara. Zelako esperientzia izan zen?

Urte politak izan ziren; maila handiko taldea genuen. 2012n, Londresen, zazpiko errugbia kirol olinpikoa izango da eta euskaldun batek baino gehiagok du joateko aukera. ■ J.Derteano

“Taldea lehiatzeko osatu gura dugu, baina baita ondo pasatzeko ere”

“Aurten gugaz hasi diren jokalariek berriak ederto egokitu dira taldera”

Lointek taldean jarraituko du Iturriagak beste urtebetean

Eneritz Iturriaga txrindulariak Lointek taldeagaz zuen kontratu beste urtebeterako luzatu du. Abadiñarrak onartu duenez, “nazioarteko hainbat talde garrantzitsuren eskaintzak” izan ditu. Hala ere, joan den hilea hausnarketarako erabili ondoren, etxean jarraitzea erabaki du: “Lointek taldean oso giro ona aurkitu dut, eta nire taldekideek zein staff teknikoak uneoro lagundu didate”. Gaineratu duenez, “etxean moduan ez da inon egoten”.

2012an aurten baino hobeto ibili gura du, eta Limburgoko Mundiala du helburu, besteak beste. ■ J.D.

Amorebietak garaipena eman dio Venezuelari

Amorebieta iurretarrak Venezuelagaz jokatu zuen martitzen, Argentinaren kontra. Venezuelak 1-0 irabazi zuen, eta Amorebieta bere izan zen gola sartu zuena. 2014an Brasilen jokatu den Mundialerako sailkapen faseko bigarren jardunaldiari zegokion partida. Venezuelako kamiseta janzten zuen bigarren aldia zen eta, kasualitateak hala nahita, bere estreinakoan ere Argentinaren kontra jokatu zuen lagun arteko partida batean.

Partidako 61. minutuan sartu zuen gola. Arango jokalariek kornerra atera eta Amorebietak buruz baloia sareetara bidali zuen, atzelariari aurrea hartuta. ■ J.D.


Frades eta Muniain, lehen eta bigarren

Asteburuan Soto Runners Zirkuituko laugarren aldia (10 kilometroko proba korrika) lehiatu zuten Gurutze Frades eta Leire Muniainek Errioxako Haro herrian, eta Mugarra Triatloi Taldeko emakumeak protagonista nagusi izan ziren. Lasterketa Gurutze Fradesek irabazi zuen, eta bigarren Leire Muniain sailkatu zen.

Frades sasoiko dago, izan ere, irail hasieran Malvasiako (Soria) triatloia irabazi zuen iurretarrak. Espainiako Koparako puntuagarria zen proban 16 minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari. ■ J.D.

Buruz buruko zesta finala etzi Durangoko frontoian

Domekan, 18:00etatik aurrera, erabakiko da profesional mailako zesta-punta txapelketako aurtengo txapelduna nor izango den



Goikoetxeak atzo arratsaldean jokatu zuen bigarren finalaurrekoa, Hernándezen kontra.

Durangok pilota profesionalen final handi bat hartuko du domekan; Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan erabakiko da nor izango den zesta-punta txapelketa irabazle. Mikel Egiguren izango da kantzara irtengo den protagonistetako bat. Bigarren finalaurrekoa atzo arratsaldean jokatu zuten Goikoetxeak eta Hernándezek (emaitzen berri, www.anboto.org-n).

Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan jokatuak lehenengo finalaurrekoan Egiguren II.ak López menderatu zuen (30-20). Hasieran partida lehiatua jokatu zuten pilotari biek. 13nako berdinketara arte ez zen garbi ikusten partida norentzat izango zen; Lópezek bi-hiru

Egigurenek 30-20 menderatu zuen López Donostian jokatuak finalaurrekoan

tantoko alde lortzen zuen, baina Egiguren II.ak ez zion markagailuan aldentzen uzten. Orduetik aurrera, Egigurenek López harrapatu eta alde egin zuen tantoa han eta hemen amaituz. Dena dela, Egigurenen bolada horretan Lópezek hankako izter batean zuen minak ere eragin zuen. Galdu arren, Lópezek ez zuen etsi azken tantora arte.

Master Jairen kexa

Polemikarako tarterik ere izan da txapelketan. Finalaurrekoan López —Jai Alive enpresako pilotaria— jokatu barik sailkatu zen, Irastortzak —Master Jai enpresakoa— ez zuelako etortzerik izan, "arrazoi pertsonalengatik", Master Jairen arabera. Bere ordezkari pilotari batek jokatzeko proposatu zion Munduko Pilota Batzarrari, baina honek sailkapena zuzenean López ematea erabaki zuen: "Araudiaren arabera, ordezkaria lesio baten kasuan aurkeztu daiteke baina kasu hau ez dagokio lesio bati". Master Jairen iritziz, "gure kontra eta Jai-Alive-en alde hartutako erabakia da". ■ J.D.

Gipuzkoarren arteko finala San Faustoetako finalean

Domekan San Fausto Txapelketako finala ere jokatu dute zestan; Durangoko Ezkurdi Jai-Alain Mutriku eta Andoian lehiatuko dira

Domekan, 11:30etik aurrera, San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatu dute Mutriku eta Andoianek Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Mutrikuko bikotea Beitiak eta Gotzonek osatzen dute, eta Andoingoa Aizpurua anaiek.

Finalaurrekoetan Mutrikuko bikoteak Gernikako Bidaburu eta Kirruk osatutakoa menderatu zuen (30-25). Bosnako berdinketaz hasi zen neurketa. Orduan mutrikuarren erauntsia etorri zen, eta markagailuan alde nabarmena egin zuten (10-

5 / 24-17). Beitia inspiratuta ibili zen aurrean, eta Gotzon sendo. Partidaren azken txanpan 28-24 hurreratu ziren gernikarrak, baina sekula ez zuen eman finalista izango zirenek galdu zezaketarik.

Aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte Gernikak eta Noainek

Bigarren finalaurrekoan ez zen kolorerik izan. Andoingoa zestalariek 30-19 menderatu zituzten Noaingo Bailo II.a eta Lakidain. Berez Noaingo bikotea Iturbidek eta Baila I.ak osatu behar zuten, baina Berriatuan Europako Txapelketako partida zuten, ezin izan zuten finalaurrekoan parte hartu.

Finalaren aurretik, Gernika eta Noainek hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko lehia jokatu dute. Finalen ostean luntxa egongo da bertaraten direnentzat. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Euskaldunak areto futboleant

Ez dira sasoi oparoak gure inguruan, krisia dela-eta, eta areto futbola ez dago horretatik salbu, baina euskaldunok aurtengo esan dezakegu inoiz baino ordezkari gehiago ditugula espainiar areto futbolaren aurreko lehenengoa.

Jose Venancio Lopez Hierro bilbotarra izan da orain arte ospe gehien lortu duena. *Curriculum Vitae* oso zabala dauka, espainiar hautatzaile moduan lortutako tituluak tarteko; Bilbo, Castro, Caja Segovia, Guatemalako selekzioa eta Lobelle Santiago taldeen entrenatzaile ere izan da.

Baina ez da gure ordezkari bakarra, eta aurtengo Nafarroari begirada bat botatzen badiogu gustura ikusiko dugu lehenengo mailan bi talde nafar dabilzala. Imanol Arregui iruindarraren Xota eta joan zen denboraldian igoera lortutako Ribera.

Xotak sei jokalarik euskaldun ditu bere lehenengoa, eta nabaria da azken urteotan kirol mailan emandako pauso garrantzitsua, iaz ligako bigarren postua lortuz.

Ribera, aldiz, aurtengo hasi du bere lehen mailako ibilaldia, eta jokatuak bost jardunaldi- ren ostean laugarren postuan ikus dezakegu. Gainera, Bizkaitar zaletuok aurpegi ezagunak ikus ditzakegu bere lehenengoa, lau jokalarik Bilbon aritu baitira orain dela urte batzuk; hoietatik bat, Jonathan Camara arabarra.

Berez, harro sentitu gaitezke gure auzotar- ren lanagatik.

Olaizolaren kontra sorpresa eman gura du Berasaluzek

Pablo Berasaluzek Aimar Olaizolaren kontra jokatu du lau t'erdiko txapelketako hurrengo kanporaketa, bihar, Bilboko Miribilla frontoi berrian. Iker Arretxe Labriten nagusitasunez mendean hartuta, final-zortzirenetako fase honetan Olaizola II.a izango du aurrez aurre kaiola barruan.

Joko aldetik sasoi onean ailegatu da berriztarra

Faborito argia goizuetarra den arren, berriztarrek sorpresa eman gura du; joko aldetik momentu onean ailegatu da, eta ez du amore erraz emango. Seguru lanak emango dizkiola Olaizola anaietan gazteenari; neurketa bizia eta erakargarria itxaron daiteke.

Bestalde, Olaizola anaie- tan helduenagaz jokatu du Ibai Zabalak festibala zabalduko duen partidaren. Urrutikoe- txea eta Beginok irtengo dute kantzara kontrako koloreagaz. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da jaialdia Miribillan. ■ M.O.

Kulturala esku hutsik bueltatu zen, hamarrekin geratu eta gero

Joan zen asteburuan Barakaldoren kontra jokatu zuen Durangoko Kulturalak. Liderra- ren kontra eta Lasasarren ber- tan jokatzeko nahikoa erronka ez bazen, lehen zatiko 18. minutuan partida aldapa gora ipini zitzaion, epaileak penalti adierazi zuelako durangarren arean; gainera, Viñas kaleratu zuen bigarren txartel horia era- kutsita. Azkenean Barakaldo 4-0 nagusitu zen.

Hala ere, Kulturalak aur- pegia eman zuen uneoro. Barakaldok penaltia sareratu eta lehenengo zatia amaitu bitartean, ez zuen ematen bat gutxiagaz jokatzeko ari zire- nik. Barakaldok bigarren zatian sartu zituen gainerako golak, Kulturalak fisikoki behera egin zuenean.

Bihar Arenas taldearen kontra jokatu du etxean. Kulturala seigarren dago sail- kapenean, 13 puntugaz. ■ J.D.

Kulturalak 70 minutu hamar jokalarigaz jokatu zituen

Hirumet oraina eta geroa lantzen, nazioartean lehiakorrago izateko

Egoitz Murgoitio gaz batara, Jonathan Lastrak eta Pablo Rodriguezek osatzen dute taldea



Pablo Rodriguez, Egoitz Murgoitio eta Jonathan Lastra Kurutziaga hotelean egindako aurkezpenean.

Ziklo krosetako Hirumet taldeak aurtengo denboraldira-ko taldea aurkeztu du. Egoitz Murgoitio gaz batara (28 urte, Izurtza), Jonathan Lastra eta Pablo Rodríguez 18 urteko gazteek osatzen dute Hirumet.

Jon Zengotitabengoa zuzendariak argi azaldu zituen zeintzuk diren helburuak: "Nazioarteko lasterketetan iaz hasitako bidean salto berri bat eman gura dugu. Murgoitio gaz

Murgoitio lehenengo hamarren artean sailkatzea du helburu

lehenengo hamarren artean sartzea bilatuko dugu. Fitxaketei dagokionez, esperientzia handiagoko txirrindulariekin, seguruk, Euskadin lasterketaren bat gehiago irabaztea lortuko genuke, baina nazioarteko txapelke-

Lastrak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen iaz, eta Rodriguezek, berriz, Espainiakoa

tak ditugu buruan, eta dohain eta etorkizun handiko gazteen aldeko apustua egin dugu".

Egoitz Murgoitio iaz 11. amaitu zuen Munduko Koparako puntuagarria zen Igorrekoren proba. Aurten, nazioartean lehen hamarren barruan sartzen

saiatuko da. Azken urte bietan irabazi duen Euskadiko Txapelketa ere berriztu gura du, eta Espainiako txapelketa eta kopa ere helburuen artean ditu.

Lastrak eta Rodriguezek gazte mailatik nagusietarako saltoa emango dute aurten. Lastra bizkaitarra esker oneko agertu zen bere aldeko apustua egin dutelako: "Kalitatearen aldetik salto handia izango da ezagutuko duguna, eta seguru nago Egoitzengandik asko ikasiko dudala". Iaz Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazi zituen, eta nazioartean ere postu aipagarrietan amaitu zuen; Herbehereetan, Gieteneko Super Prestigio lasterketan, 11. sailkatu zen.

Gazte biek hainbat postu aipagarri lortu zituzten nazioartean

Rodriguez galiziarrek denboraldiari ekiteko gogoia erakutsi zuen: "Gazteetatik profesionaletara saltoa dago, baina ni daukadan guztia emateko prest nago". Rodriguezen iazko jarduna ere ez da txantxetako. Galiziako eta Espainiako txapeldun geratu zen, eta Munduko Kopako lau lasterketetan lehenengo hogeien barruan sailkatzea lortu zuen. ■ J.Derteano

Anton Barrutia txirrindulari ohia omendu dute

Hirumet taldeko aurkezpena Anton Barrutia txirrindulari ohia omentzeko ere baliatu zuten. Barrutia iurretarrak 1960an Munduko Ziklo-kros Txapelketa laugarren amaitu zuen. Euskal Herri zein Estatu mailan beste inork oraindik hobetu edo berdindu ez duen marka da elite mailako ziklo-krosetan.

Barrutiak bertaratutako guztien txalo artean jaso zuen oroigarria Hirumet taldearen eskutik. ■ J.D.



Tabirakoko gizonen talde nagusia garaipen barik

Lehen jardunaldi bietan galdu egin dute; emakumeek, aldiz, bitik bi irabazi dituzte

Alberto Alonso eta Txiki Garitao nandiak entrenatutako gizonen taldeak bigarren fasera sailkatzea du helburu aurten, eta horretarako lehenengo bosten artean sailkatu behar du. Orain artekoak baino emaitza hobeak eskuratu beharko dituzte horretarako. Lehenengo jardunaldian San Ignacioren kantxan galdu

San Ignacio eta Ardoiren kontrako partidak galdu egin ditu Tabirako Baquék

zuten (62-48), eta joan zen asteburuan etxean jaso zuten porrota, gutxiatik izan bazen ere: 83-88 Ardoiren kontra.

Alberto Alonsok zuzendutako emakumeek jipoitu egin zuten Obenasa estreinakoan (33-76), eta ondoren etxean 54-38 menderatu zuten Getxo. Maila horretan beste lau taldek lortu dute lehenengo neurketa biak irabaztea.

Bestalde, lehen erregional bereziko derbian, Tabirako Baquék 85-66 irabazi zion Anbotopekori. Beraz, Tabirakok maila honetan ere bitik bi irabazi ditu orain arte. Anbotopeko garaipen batek dago. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Arenas Club

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

GOREN MAILA

Zaldia - Mungia

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Extremeño

Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

Elorrioko B - Salesianos

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia Hierros Serv. - Elorrioko Buskantza

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

Sasikoa - Zarautz

Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Abadiñoako Lagun - Alkideba Saltzailleak

Barikuan, 19:15ean, Berrizburun

Presion Break - Elorrietako Senses

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrioko B - Aurrera Beti

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

Sapuberri - Dantxari

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

PILOTA

XXIV. OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

- Rezusta (Gipuzkoa) / Urdina (Markina)

Binaka:

- Urbleta (Gipuzkoa) - Senperena (Gipuzkoa) / Larrañaga (Gipuzkoa) - Uzkudun (Gipuzkoa)

Urriak 20, eguena, 21:30ean Zaldibarko pilotalekuan

CAFES BAQUÉ TXAPELKETA

- Zubikarai / Larrañaga - Prado / Calleja

- Unanua / Garcia - Guaristi / Ortiz

Urriak, 19, eguaztena, Abadiñoako pilotalekuan

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19. behea • Tel.: 94 681 66 73

Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

AMALURRA>



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Gidatze eraginkorraren abantailak trafikoaren kutsadura arintzeko

Egunero kotxean egiten ditugun joan-etorrien erdia hiru kilometro baino gutxiagokoa izaten da

Gidatzeko moduak eragin zuzena dauka trafikoaren kutsaduran. Ohitura batzuk hartuta murriztu egin daiteke

Joan-etorrien % 87 ibilgailu pribatuan egiten da Durangaldean; badaude aukerak trafikoak sortzen duen kutsadura murrizteko.

Durangaldeko airearen kalitatearen datuen arabera, goizetan arnasten da kutsadura gehien gure eskualdean, eta kutsadura horren erdia inguru trafikoak eragiten du. Irailaren amaieran Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatu dute hainbat herritan, tartean Durangon. Aste horren baitan Auto Bako Eguna ospatzen da, baina urtean zehar auto barik ibiltzea batzuetan gaitza izaten da.

Eskualdean autoaren erabilerak nahiko handia da egunerokotasunean. Durangaldeko Mugikortasun Planean batu zuten, joan-etorrien % 87 ibilgailu pribatuan egiten da. Garraio publikoan mugimendu horren guztiaren % 10 egiten da, eta oinez edo bizikletan % 3. Estatistikek diote kotxez egiten ditugun ibilbideetatik ia erdiak

hiru kilometro baino gutxiagokoa direla. Oinez edo bizikletaz egin daitezkeen joan-etorriak izaten dira sarri.

Autoz gutxiago kutsatzeko

Bidaiek partekatzea trafikoak murrizteko neurri ona izan daiteke, eta egunero autoz ibili beharrean batzuetan garraio publikoa erabiltzea ere bai. Halakorik egin ezin denean, gutxiago kutsatzeko moduak daude, modu eraginkorrean gidatuz.

Mugikortasun Iraunkorraren Astea ikastaroa eman zuten, Durangon, gidatze eraginkorrari buruz. Hona hemen ikastaroan emandako aholku batzuk:

- Motorra azeleragailua zapaldu barik piztu.
- Lehenengo martxa mugimenduaren hasieran bakarrik erabili. Gutxi gorabehera 6 metro egin-

dakoan bigarren martxara aldatu daiteke.

- Ahalik eta biraketa gutxienekin gidatu, martxa luzeekin. 1.500 eta 2.000 erreboluzio artean ibiltzea komeni da.

- Azelerazioa ahalik eta uniforme erabiltzea gomendatzen dute, galgatzeak eta bat-bateko azelerazioak saihestuz.

- Ahal den heinean, autoaren abiadura moteltzeko azeleragailutik oina altxatu eta martxak bajatzen joan.

- Aurreikuspenez jokatu. Segurtasun distantzia egoki batera gidatuz gero aurreko ibilgailuek zer egingo duten ikusi eta gozogo eta eraginkorrago gidatu daiteke.

Kutsadura murrizteaz gainera, neurri horiekin dirua aurrezte eta segurtasun handiagoa izatea lortzen da.

Jaietan ere, euskaraz bizi nahi dut

Urriaren 14an 19:00etan
DENOK PLATERUENARA



AEK - Anboto - Berbaro - Durangoko Hizkuntza Eskola - Euskal Herrian Euskaraz
Ibaizabal Ikastola - Kurutziaga Ikastola - Plateruena - Udal Euskaltegia

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 615-00 72 16

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du. Kalefazioa. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 82 m². 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Tel.: 628-78 78 35

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel.: 647-77 73 92.

Durango. Muruetatorre auzunean. 90 m²ko etxea. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun. Guztiz berriztua eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. Tel.: 686-13 89 09.

Durango. 98 m². Oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leiholdunak, 2 terraza partikular. Altzariz betea, galdara jarri berria, atekak eta zoria aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Durango. 94 m². Herriko Gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 330.000 euro. Tel.: 615-76 08 01.

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Erabat berriztatua eta jantzitza. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua. Tel.: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiaren. Kalefakzioa eta aire egokitu. Igogailurik ez dauka. Zaharberituriko eraikina. Tel.: 665-94 46 74

Durango. 3 urte. Bi logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta 90 m²-ko terraza handia. 28 m²-ko garajea barne. Tel.: 637-41 64 38

Durango. Sasikoan. 3 logela, komuna eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa gas naturalarekin. Garajea. Ganbara. 679 38 23 69

Elorrio. 65 m². Buzkantz kalean. 2 logela, komuna, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. Tel.: 94-682 12 34.

Elorrio. Babes ofizialeko etxebizitza trukatzeko Durangoko kide baten bila nabil. etxea2011@yahoo.es

Elorrio. Erdialdean kokatua. 2 logela eta 2 bainugela. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. Berria, erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua. Igogailua. Trastelekua. Tel.: 657-79 39 93

Mallabia. Baserria eta 20.000 m²-ko lur zatia, egokia mahasti bat jartzeko. Kokapen ona. 330.000 euro. Tel.: 655-70 26 47 (20:00-22:00 bitartean). Hormigoizko estruktura.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekua. Tel.: 675-71 72 83

Zaldibar. 300 m²-ko baserria berriztua. 24.000 m²-ko lur-saila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625-70 59 97.

EROSI

Durungaldea. Baserria erosiyo nuke, lursail apur batekin. 250.000 euro (negoziagarri). 618-936 214.

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Etxea errentan. Tel.: 695-782 786.

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila Durango edo inguruetan. Tel.: 617-86 00 55

PISUA KONPARTITU

Durungaldea. Pisua konpartitzeko lagun bila (emakumea nahiago). 688 67 86 90

Durango. Logela bat alokagai komun pribatuarekin Ibaizabal auzoan. 652 86 57 80

Durango. Pisukide bila nabil. Tel.: 605-77 03 57.

Durango. Pisua konpartitzeko lagun baten bila. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldea konpartitzeko. Tel.: 650-73 87 24

LOKALAK

Abadiño. 44 m²-ko txoko berria salgai Matienan. Beharrezko baimen guztiekin. Tel.: 672-25 80 41

Elorrio. 360 m²-ko pabilioia salgai industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. 950 m²-ko pabilioia salgai industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

GARAJE/TRASTEROA

SALDU

Durango. Trastelekua salgai astepe auzunean. 18 metro karatu eta bi altuera, leihoa eta ate berria. 665-70 75 35.

Durango. Ixtitako garajea salgai tronperri kalean, erdialdean. Tel.: 628-78 78 35

Elorrio. Berrio-otxoa kalean garaje itxia salgai. Tel.: 658-75 92 64.

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia alokagai San Ignazio auzunean. Tel.: 94-681 25 10.

Durango. Montebideon 26 m²-ko garaje itxia errentan. Tel.: 656-76 76 06.

Durango. Antso estegiz kalean garajea alokagai. Tel.: 690-18 91 68

Teknologia

AUDIOA

SALDU

Autorako radio mp3 salgai. Radio cd/mp3/wma pioneer deh4700mp. Erabili gabea. Deitu: 636-271 508.

GAINERAKOAK

Bidali zure ordenagailua Boli-viara. Hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren birtartez bialduko dugu 2.mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana/negoziolak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska gazte euskaldunak bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. 20 urteko neska asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 646-82 26 28.

ETXEKO LANAK

Durango. Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest. 615-71 62 32.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Neska euskalduna, fisioterapiari diplomaturia. Etxez etxez errehabilitazio traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, ... egiten ditut, bakoitzaren beharretara egokituta. Tel.: 635 74 15 15.

Durungaldea. Neska gazte eta euskalduna umeak zaintzeko prest. Goi mailako haur hezkuntzako ikasketak burutua. 615 00 59 64

Durango. 21 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, klase partikularrak zein ingeleseko klaseak emateko prest. Magisteritza ikasten. Umeekin esperientzia zabal irakasuntzan zein kirol guneetan. Tel.: 660252793, a_aldekoa_90@hotmail.com.

Durango. Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 696-75 35 30

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gauzez. Esperientzia askorekin eta erreferentziekin. Tel.: 603-95 41 94

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuak deitu telefono honetara: 646-53 83 90

Durango. Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

Durango. Andre euskalduna pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... zaintzeko prest. Urte askoko esperientzia. Tel.: 699-74 57 23 (ines)

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Emakume arduratsuak bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, taberna garbitzeko eta antzeko-etak. Tel.: 670-67 46 41 (Juana).

Durango. Neska gaztea, etxeko lanak egiteko, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Venezuelako neska baina Euskal Herrian guztiz integratua. Esperientzia handia umeekin eta pertsona nagusiekin. Tel.: 667-07 45 34.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zaintzarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Tel.: 697-12 64 38

Durango. Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketa lanetarako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 638-43 79 01

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentziak. 627-210 570.

rentzia onekin pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna edo externa modura. Orduka, jardunaldi erdian edo osoan, asteburuetan edo gauzez. Paperekin. Tel.: 628-00 22 17

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, astelehentik ostiralera, 13:00etatik 20:00etara. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Tel.: 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burutua. Esperientziaduna. Tel.: 615-71 62 32.

Durango. Persona nagusien, umeen edo garbiketa lanen lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 646-10 45 52

Durango. Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziak. Tel.: 697-12 64 38

Elorrio. Neska gaztea eta euskalduna aste barruan, goizetan, umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasi ditut. Umeekin esperientzia eta autoa. Tel.: 626-19 68 85.

Elorrio. Haur hezkuntzako irakaslea. Durangon, Elorrian, Matienan nahiz Abadiñon umeak zaintzeko prest. Nahi den ordutik 13:00etara, eta 16:00etatik nahi den ordura arte. Tel.: 666-19 75 68

